



OIARTZUNGO
UDALA

AUZO BILERAK 2023

AUZO: ARRAGUA

Data-Fecha	Hasiera ordua-Hora inicio	Bukaera ordua-Hora final
2023/10/16	19:00	21:10

BILDUTAKOAK-Participantes:

Udal ordezkariak: Representantes del ayuntamiento	Joana Mendiburu, Aiako Harria Gaztelumendi, Agustin Lekuona eta Edorta Fernandez			
Herritarrak- Vecinos/as: 34	Euskaraz: 30		Elebitan: 4	
	Emakumezkoak-Mujeres: 14		Gizonezkoak-Hombres: 20	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 14	51-65 urte:6	>66 urte:5

AKTA-Acta:

Gaia-Tema	Ekarpena eta iruzkinak-Aportaciones y sugerencias
Aurkezpena- Presetación	Batzarrean zehar landuko den gai zerrenda azaldu da. <i>Se ha expuesto el orden del día que se va a tratar a lo largo de la Asamblea.</i>
Legealdirako proiektuak- Proyectos para la legislatura	Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman dugu. Se han expuesto las líneas de trabajo principales o estratégicas ABIAPUNTUA- Punto de partida 1) Aurreko legealdietatik jaso duguna oso baikorra izan da, eta horrek lagundu egiten du: herriak udalean duen konfiantza, zorrik gabeko udala izatea, talde polita sortu dugu, teknikariek zinegotzietatik izan duten harrera oso ona izan da. Proiektuen aldetik ez gara zerotik hasi, aurreko taldeak egindako lanaren jarraipena egingo dugu. <i>Lo que hemos recibido de anteriores legislaturas ha sido muy positivo, y eso ayuda: la confianza del pueblo en el ayuntamiento, el ayuntamiento sin deudas, hemos creado un grupo muy bonito, la acogida de los técnicos con los concejales</i>



OIARTZUNGO
UDALA

ha sido muy buena. Por proyectos no hemos empezado de cero, seguiremos el trabajo realizado por el equipo anterior.

- 2) Herritarrekin lan egiteko formula berriak bilatu behar ditugu, abiapuntua auzolana izango litzateke, UDALGINTZA HERRIGILEA, arriskuak aukera bihurtzeko udal politika. Herritarrak dira protagonista, udalak baliabideak jartzen ditu, baina ondoren sektore ekonomiko bat egon behar da bultzada emango diona.

Tenemos que buscar nuevas fórmulas para trabajar con la ciudadanía, el punto de partida sería el trabajo vecinal, UDALGINTZA HERRIGILEA, la política municipal de convertir los riesgos en oportunidades. La ciudadanía es la protagonista, el ayuntamiento pone los recursos, pero luego hay que tener un sector económico que le dé impulso.

- 3) Hauteskundeak irabazi ditugu, eta programan hitz emandakoa bete egin behar dugu.

Hemos ganado las elecciones y lo prometido en el programa tenemos que cumplirlo.

- 4) Krisi egoera orokor batean gaude, baina horren aurrean Oiartzundik bertatik egoerari buelta ematen hasi beharko genuke

Estamos en una situación de crisis general, pero ante ello deberíamos empezar a dar la vuelta desde Oiartzun a la situación

LEGEALDI PLANA- PLAN DE LEGISLATURA

3 lan-lerrotan banatuta dago: herritarrak (ongizatea, kultura, euskara, zaintza...), lurraldea (lurraren zein herriaren antolaketa) eta antolaketa (udaletxearen funtzionamendua eta zein giza-baliabide dituen)

Se divide en 3 líneas de trabajo: ciudadanía (bienestar, cultura, euskera, cuidados...), territorio (organización del suelo y del pueblo) y organización (funcionamiento del ayuntamiento y sus recursos humanos)



OIARTZUNGO
UDALA

LAN ILDO ESTRATEGIKOAK- LÍNEAS ESTRATÉGICAS DE TRABAJO

- 1) ELIKADURA BURUJABETZA: gaur egun, udalak laguntzen dituen hainbat egitasmo daude martxan. Udalak hasierako bultzada eman die elkarte hauei, eta ondoren beren bidea egin dute. Herriko lurrak erosten jarraituko dugu 1.sektorea bultzatzeko, herriko sukaldeak hornitu nahi ditugu herrian bertan ekoiztako jakiekin (herriko ikastetxeak, zahar etxea...). Herrian badaude ekimen ugari beren kabuz proiektuak bultzatzen ari direnak, baina ez dute foro komunik elkarlanean aritzeko.

SOBERANÍA ALIMENTARIA: en la actualidad se están llevando a cabo diferentes proyectos de ayuda municipal. El Ayuntamiento ha dado un impulso inicial a estas asociaciones y han seguido su camino. Con el fin de impulsar el primer sector trabajaremos en la compra de terrenos, se pretende dotar a las cocinas locales de alimentos producidos en el municipio (colegios locales, residencia de ancianos...). En el pueblo hay muchas iniciativas que están impulsando proyectos por sí mismas, pero no tienen un foro común de colaboración.

- 2) ENERGIA BURUJABETZA: sortu berri da Argitturri kooperatiba (hiruki horren parte den zutabe sozioekonomikoa). Udal mailan zein herri mailan neurriak hartu behar dira klima aldaketa dela-eta.

SOBERANIA ENERGÉTICA: se acaba de crear la cooperativa Argitturri (pilar socioeconómico que forma parte de este triángulo). Hay que tomar medidas tanto a nivel municipal como a nivel local sobre el cambio climático.

- 3) MUGIKORTASUN JASANGARRIA: herrian ohiturak aldatzen hasi behar dugu. Bizikletak lehenesteko plana egiteko asmoa dago (aparkalekuak...). Beste asmo bat da Arraguan intermodala eskatzea, oiartzuarrok aukera izan dezagun Euskal Herriko hainbat lekutara joateko: Gasteiz, Bilbo, Iruñea...

MOVILIDAD SOSTENIBLE: debemos empezar a cambiar los hábitos en el pueblo. Se prevé realizar un plan de priorización de bicicletas (aparcamientos...). Otra



OIARTZUNGO
UDALA

de las intenciones es pedir una parada intermodal en Arragua, para que los ciudadanos de Oiartzun tengamos la oportunidad de ir a diferentes lugares de Euskal Herria: Vitoria, Bilbao, Pamplona...

- 4) OSASUNA ETA ZAINZTA: Zaintzadi programaren inguruan hitz egin dugu, bakardade ez hautatuan dauden herritarrak laguntzeko egitasmoa da. 22 herritarrek eman dute dagoeneko izena ekimen honetan. Zaintzadiren ideia da udalak laguntzea, baina herritarren sare baten laguntzarekin batera. Zaintza askotan osasun arazoak konpontzearekin lotuta egoten da, baina udalaren ardura da bizitza aktiboa sustatzea, bakardadeari laguntzeko modua ere baita horrelako ekimenak antolatzea.

SALUD Y CUIDADOS: Hemos hablado sobre el programa Zaintzadi, un programa de apoyo a la ciudadanía en soledad no elegida. 22 ciudadanos ya se han apuntado a esta iniciativa. La idea de Zaintzadi es ayudar que el ayuntamiento ayude pero con la colaboración de una red ciudadana. En muchos casos el cuidado está relacionado con la resolución de problemas de salud, pero es responsabilidad del Ayuntamiento promover la vida activa, la forma de contribuir a la soledad y la organización de este tipo de iniciativas.

- 5) KULTURA EUSKARAZ: bizi ditugun garaiek euskalgintza hauspotzeko beharra erakusten dute (etorkinak, euskararen aurkako erasoak...). Landetxe dagoeneko eraiki dugu, eta orain kultura plana egiteko momentua da. Gazte sortzaile ugari dugu herrian. Irakurzaletasuna sustatzeko aukera berriak aztertuko ditugu. Ondarea balioan jarriko dugu, eta udalaren lokalak eskura jarriko ditugu herriko kultur-sorkuntza bultzatzeko.

CULTURA EUSKARAZ: los tiempos que vivimos demuestran la necesidad de impulsar nuestro idioma, el euskera. Hemos construido el edificio Landetxe y ahora es el momento de hacer el plan cultural. Tenemos muchos jóvenes que crean en el pueblo. Estudiaremos nuevas posibilidades para fomentar la lectura. Vamos a seguir valorando el patrimonio y trabajaremos para poner a



OIARTZUNGO
UDALA

	<p><i>disposición de los ciudadanos-ciudadanas locales municipales para impulsar la creación cultural del municipio.</i></p> <p>LEGEGINTZALDIAN MARTXAN DIREN ETXEBIZITZA SUSTAPENAK. PROMOCIONES DE VIVIENDA EN FUNCIONAMIENTO DURANTE LA LEGISLATURA: Altzibar zein Iturriozko promozioen berri eman da. Elizaldeko Urkabe Baitako eremuaz hitz egin da. Babes ofizialekoetan interesa izanez gero, Etxebiden eman behar da izena, eta Altzibarreko tasatuetarako urriko plenoan irekiko da izena emateko epea.</p> <p><i>Se informa de las promociones tanto de Altzibar como de Iturrioz. Se habla de la zona de Urkabe Baita de Elizalde. En caso de estar interesado/a en las VPO, la inscripción se realizará en Etxebide y el plazo de inscripción se abrirá en el pleno de octubre para las tasadas de Altzibar</i></p> <p>Udal etxebizitza bulegoaren inguruko informazioa eskaini da. <i>Se ha ofrecido la información sobre la oficina municipal de vivienda.</i></p> <p>UDAL ORDENANTZEN IGOERA- INCREMENTO DE LAS ORDENANZAS MUNICIPALES: %1,5 igoko dira tasak. Udalak sekulako ahalegina egin du azken urteetan ez igotzeko. Hala eta guztiz ere, KPIa baino gutxiago igo dugu gure herrian, azken batean, oreka bilatu behar dugu kalitatezko zerbitzuak izateko.</p> <p><i>Se incrementarán las tasas en un 1,5%. El Ayuntamiento ha hecho un esfuerzo en los últimos años para no subirla y esa subida ha sido menor que el IPC, en definitiva, tenemos que buscar el equilibrio para tener servicios de calidad.</i></p>
2024ko aurrekontu aurreikuspena- Previsión presupuestaria 2024	<p>AURREKONTUA- PRESUPUESTO</p> <p>Lan ildo eta erronka hauentzat 20.200.000 euro ditugu. Arloz arlo ondorengoa izango da banaketa: Herritarren arloak %49, lurraldeak %36 eta antolaketak %15.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

	<p><i>Para estas líneas y retos contamos con 20.200.000 euros. La distribución por áreas será la siguiente: 49% para gastos de población, 36% para gastos de territorio y 15% para gastos de organización.</i></p> <p>Honakoak izango dira inbertsio nagusiak: mugikortasuna (bidegorri sarea, aparkaleku seguruak), energia (efizientzia energetikoan pausuak eman, energia berriztagarrien instalazioak), liburutegia birdiseinatu, herritarrentzako arreta gunee bakarra jarri udalean, futbol zelai artifizial berria, udal eraikinen mantenua, hirigintza (Urkabe baitako etxeak eta Altzibarko promozioa), kulturgintza (kultura plana landu eta Landetxe erreferente bihurtu), ongizatea (bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroa).</p> <p><i>Las principales inversiones serán en la movilidad (red de bidegorris, aparcamientos seguros), la energía (dar pasos en eficiencia energética, instalaciones de energías renovables), el diseño de la biblioteca, establecer un único punto de atención al ciudadano en el ayuntamiento, el nuevo campo de fútbol artificial, el mantenimiento de los edificios municipales, urbanismo (viviendas de Urkabe y promoción de Altzibar), la actividad cultural (elaborar el plan cultural y crear en la comarca en un centro de día para personas en situación de exclusión).</i></p>
Auzoa-El barrio	<p>-Hondarribia eta Irundik Donostiako Ospitalera zuzen doan autobusa dago, Oartzundik ezin da bat zuzenean jarri? Oarsoaldeko herri bakarra gara?Udalak erantzun du autobus zuzenaren eskaera egin zela eta aldundiak ez zuela onartu. Gehitu du martxan dagoela Oreretatik zuzenean doana Oartzundik pasatzeko proiektua. Aldundiak lehiaketara atera behar du eta ondoren jarriko litzateke martxan. <i>¿Hay un autobús directo desde Hondarribia e Irún al Hospital de Donostia, desde Oartzun no se puede poner uno en directo? ¿Somos el único pueblo de Oarsoaldea? El Ayuntamiento responde que se hizo la petición de autobús directo y que la Diputación no lo aceptó. Añade que está en marcha el proyecto de paso directo por Orereta desde Oartzun. La Diputación tiene que salir a concurso y luego se pondría en marcha.</i></p>



OIARTZUNGO
UDALA

-Inbertsioei dagokienez, futbol zelaiarekin, Europar batasunak zelai artifizialak debekatuko dituela ea badakigun galdetu dute. Udalak erantzun du jakinaren gainean gaudela eta debekua zelai mota batentzat bakarrik izango dela (kautxo beltza dutenentzat). Hala ere, informazioa kontuan izango dela jakinarazi da. *En cuanto a las inversiones, preguntan si sabemos que con el campo de fútbol la Unión Europea va a prohibir los campos artificiales. El Ayuntamiento responde que lo sabe y que la prohibición se limitará a un tipo de césped (para los que tienen la cacho negro). No obstante se informa que se tendrá en cuenta la información.*

-Arraguako promozioa- Promoción Arragua:

-Obrak gauzatzeko denbora falta da oraindik, (urte bat edo bi). Gailur enpresa sartu da orain eta badirudi aurrera doala, baino zerbait argia dagoenean jakinaraziko da eta auzora etorriko gara berriro ongi azaltzera. Dakiguna da salerosketa libreko etxebizitzet gain, VPO eta Tasatu asko doazela bertan. *Falta tiempo hasta el inicio de las obras (uno o dos años). La empresa Gailur ha entrado ahora y parece que avanza, pero cuando algo este claro se comunicará y volveremos al barrio a explicarlo bien. Lo que sabemos es que además de las viviendas de libre compraventa, van muchas VPO y Tasados.*

AUZOKO ATALA- SECCIÓN DE BARRIO

Kalean kirola edo ariketa fisikoa egiteko makinak eskatu ziren, eta jarri dira, baino batzuk ezin dituzte erabili pedalak urruti geratzen direlako eta ez dira erosoak, finkoak baitira, bestalde errepidetik gertu daude eta kontaminazioa, soinua etab... dutenez, ez dira atseginak.

Udalak erantzun du kokalekua erabakitzerakoan beste eremuak libre uzteko helburuarekin aukeratu zela, eta agian begiratu daitekeela. Hobetzeko, beste makinaren bat jartzea edota eserlekuak mugitzeko aukera dutenak jartzea kontutan hartuko da.

Se pidieron máquinas para hacer deporte o ejercicio en la calle, y se han instalado, pero algunas no se pueden utilizar los pedales porque quedan lejos y



OIARTZUNGO
UDALA

no son cómodas, son fijas, están cerca de la carretera y tienen contaminación, sonido, etc., por lo que no son agradables. El Ayuntamiento responde que al decidir el emplazamiento se eligió con el objetivo de liberar otros espacios, y que tal vez se pueda mirar. Para la mejora se tendrá en cuenta la colocación de otra máquina o la colocación de asientos con movilidad.

Goiko parkean (jarri berri denean) zuhaitzak asko handitu dira, kimatzeko eskatu da erortzeko arriskua ikusten delako inguruko etxeetatik. Eskaera sartu da eta jasotako erantzunak desatseginak ere izan dira.

Udalak aztertuko duela eta arriskua zein den ikusiko duela esan du, hala ere, aldaketa klimatikoarekin itzal puntuak beharko dira etorkizunean eta hori ere kontutan izango dela jakinarazi du.

En el parque superior (recién colocado) ha crecido mucho el arbolado, se ha solicitado la poda. Se ha introducido la solicitud y las respuestas recibidas han sido también desagradables. El ayuntamiento estudiará el riesgo, pero también ha remarcado que con el cambio climático se necesitarán puntos de sombra en el futuro.

Topo azpiko kanastak daude. Bitako batean, goitik (Euskotren) ur “via” bat erortzen da eguraldi txarra dagoenean eta ezin da bertatik pasa ere egin, arriskutsua jartzen da. Udal langileak ikustera pasako dira eta Euskotrenekin ere hitz egingo da, aztertzeko. Hay canastas bajo el Topo. En uno de ellos, desde arriba (Euskotren) cae una “vía” de agua cuando llueve y no se puede pasar por ella, se pone peligrosa. El ayuntamiento pasará a ver y se hablará con Euskotren para su análisis.

Autopistako irteeran, kamioiak sartzen jarraitzen dute, auzora sartu, kotxeak jo, etab... Edozein egunetan etxe barrura sartuko dira. Agian kartela, rotondakua eta abar gorago igo edo. Udalak jakinarazi du gaiak ez duela irtenbide erreza. Galiboak jarri dira eta argizatutako seinaleak ere jarri dira.



OIARTZUNGO
UDALA

Arazoa aztertzen jarraituko dugu. *A la salida de la autopista siguen entrando camiones, entran en el barrio, golpeando coches, etc... Cualquiera día entrarán en el interior de la casa. Quizás haya que subir más el cartel, el rotondáculo, etc. El Ayuntamiento informa que el asunto no tiene una solución fácil. Se han colocado gálibos y señalización iluminada. Seguiremos analizando el problema.*

Lanbarreneko poligonora ezin da autopistatik irteera bat egin?

Plan sektorial bat dagoela erantzun du udalak, etorkizunean burutuko dena (luze doa) eta plan hau udalaren gaintetik dagoenez, gaia bere horretan ez dago gure esku. *¿No se puede realizar una salida de autopista al polígono de Lanbarren? El Ayuntamiento responde que hay un plan sectorial, que se va a llevar a cabo en el futuro y que como este plan está por encima del Ayuntamiento, el tema no está en nuestras manos.*

Honekin lotuta, goizero eta arratsaldero (lanerako sartu-irteera ordutan)

trafiko arazoak sortzen dira, ezin da auzotik sartu edo atera. Aurrez aipatutako Plan sektorial hori gauzatu arte irtenbide zaila du arazoak. *Todos los días por la mañana y por la tarde (horas de entrada y salida al trabajo) se producen problemas de tráfico, no se puede entrar o salir del barrio. El ayuntamiento a respondido que la solución del problema es complicada hasta la materialización del Plan Sectorial anteriormente citado.*

Goiko partean, espaloia bukatzen da eta karretera da dena, bertan kotxeak abiaduran pasatzen dira. Ganboxa-Larrezabaleta kaleetan abiadura handian ibiltzen da jendea, Orain gainera Arkaleko bidea itxita egonik, ehiza eskolara todoterreneoekin etab. Abiadura handian pasatzen dira. Agian oztopoak, limiteak, seinaleak jarri daitezke, haur eta helduentzat batez ere, oso arriskutsua da. Udalak begiratuko duela jakinarazi du. Hala ere adierazi du, oztopoak jartzean beste bizilagun batzuk ere kexak jartzen dituztela kentzeko



OIARTZUNGO
UDALA

eskatuz. Agian seinaleetika lan bat egin daitekeela esan da, oinezkoentzat den zatia margotuz jendeak abiadura murrizteko, gai aztertuko da.

En la parte superior termina la acera y todo es una carreta, donde los coches pasan a gran velocidad. En las calles Ganboxa-Larrezabaleta la gente va a gran velocidad, además al estar el camino de Arkale cerrado, pasar por arragu apara ir a la escuela de caza con todoterrenos, etc. Pasan a gran velocidad. ¿Se pueden poner obstáculos, límites? El ayuntamiento informa que va a estudiar el caso.

Lanbarrenen kamioiekin arazoak daude, ez dute lekurik. Udala egoeraz jakitun da, mahai bat sortu du enpresekin eta udaltzaingoarekin batera gaia lantzeko. *Los camiones de Lanbarren tienen problemas, no tienen sitio. El Ayuntamiento es consciente de la situación, ha creado una mesa junto con las empresas y la Policía Municipal para trabajar el tema.*

Panelak jarri dira autopistan baino ez du balio, ez dute beren funtzioa guztiz betetzen. Transmitituko du udalak hau Aldundian. *Los paneles se han colocado sólo en la parte de la autopista, no cumplen totalmente su función de aislar el ruido. El Ayuntamiento se lo transmitirá a la Diputación.*

Ganboxa kaleko parkin berrian STOP bat dago, baino askotan, batez ere anbulantzia, furgoneta edo autokarabanak baldin badaude, ez da ikusten. Gainera abiadura handian datoz kotxeak, ea ispilu bat edo jarri daitekeen eskatu da, istripu bat gertatu aurretik. Udalak lekua ikusiko duela esan du eta nola egin daitekeen aztertuko duela. *En el nuevo parking de la calle Ganboxa hay un STOP, pero en muchas ocasiones, sobre todo si hay ambulancias, furgonetas o autocaravanas, no se ve. Además, los coches vienen a gran velocidad, se ha pedido que se pueda colocar un espejo antes de que ocurra un accidente. El Ayuntamiento verá el lugar y estudiará cómo se puede hacer.*

Estankoko plazan kotxeak aparkatzen dira, espaloian ganean, edo denboraz mugatuta diren plazetan, eta hor uzten dira (azkena 5 egunez) Udaltzainek ez dute erantzuten, jendeari esan, eta erantzun egiten dute. Gaia aztertuko duela jakinarazi du Udalak. Udaltzainekin batera proposamen bat egingo du. *En la*



OIARTZUNGO
UDALA

plaza del estanco se aparcen coches sobre la acera o en plazas limitadas en el tiempo, donde se dejan (el último 5 días) Los agentes no responden y si le dices algo al propietario te responde de malas maneras. El Ayuntamiento informa que estudiará el tema. Junto con la Policía Municipal realizará una propuesta.

Auzotar batek hausnarketa bat egiten du, Udalari eskatu eta eskatu ari gara, baina gu, auzotarrak gara azkar pasatzen garenak. Arratoiak daude gure utzikeriagatik, organikoa hor uzten dugu jaso gabe, etab... Eremu gutxi ditugu haurrekin jolasteko eta belar gune gehienak kakaz beteak ez dugulako arduraz jokatzeko, ez ditugu jasotzen eta ez dugu elkar errespetatzen. *Un vecino reflexiona, estamos pidiendo y pidiendo al Ayuntamiento, pero nosotros somos vecinos y vecinas, los que pasamos rápido. Hay ratas por nuestra dejadez, dejamos el orgánico ahí sin recoger, etc... Tenemos pocas zonas para jugar con los niños y la mayoría de las zonas herbáceas no se utilizan de forma responsable, ni se cuidan ni se respetan.*

Lapurretak daude goiko partean, 2 hilabete ez dira pasa eta lapurretak berriro ere. Udaltzaingoekin hitz egingo da adi egon daitezten. *Hay robos en la parte superior, no han pasado ni 2 meses y de nuevo robos. El ayuntamiento dice que hablará con las policías locales para que estén atentos.*

Poligonoan (beheko torreak eta etxeak) portal zenbaki bat ematea eskatzen da. Arazoak daude paketeak, kartak etab...jasotzeko. Anbulantziari deituta ere arazoak. Izen aldatetarekin hasi ziren arazoak. Zergatik aldatu zen?. **Bizilagun guztiek (komunitateak) eskatu duela zenbaki bat emateko. Udalak jakinarazi du orain aldatzeko nahia balego ez dela komunitate bezala egin behar, bizilagun bezala baizik. Norbanako bakoitzak oniritzia eman behar du segurtasun juridikoa edukitzeko. Udalak esan du ez dakiela zein den aldatetaren arrazoia baina informazioa bilduko duela. *Se solicita la asignación de un número de portal en el polígono (torreones y casas inferiores). Hay problemas para recibir paquetes, cartas, etc. Problemas con el servicio de ambulancia. Los problemas comenzaron con el cambio de nombre. ¿Por qué cambió?. Los vecinos (comunidad) han solicitado un solo número. El***



OIARTZUNGO
UDALA

Ayuntamiento informa que si ahora se quiere cambiar no se debe hacer como comunidad sino como vecino. Cada individuo debe dar su visto bueno para tener seguridad jurídica. El Ayuntamiento dice que no sabe cuál es el motivo del cambio pero que recogerá información.

Gimnasia egiteko lokal bat helduentzat.

Lokala, berez, bilera egin den hau da (Aldeguna elkartean gainekoa). Ulertzen dugu HELTA ko ekintzaren bat edo ekartzeko aukeraz ari garela, aztertu daiteke, jende kopuru bat badago eskatzen duena, beste auzotara joaten diren bezala, arraguan ekintzaren bat egitea gauzagarria izan daiteke. *Un local de gimnasia para adultos. El local es, en principio, el de la reunión (sobre la sociedad Aldeguna). Entendemos que cuando hablamos de una acción de la HELTA o de la posibilidad de traerla, se puede analizar si hay un número de personas que lo solicitan, al igual que se desplazan a otros barrios, puede ser factible realizar alguna acción en Arragua.*

Belar mozketekin ea zer pasatzen den, bi hilabetetik behin, batzuetan moztu eta jaso, albotatik desbrozadorekin pasa gabe txukun uzteko...

Udalak informatu du enpresarekin duen kontratua ez dela aldatu. Beste auzotan ere kexak egon direla jakinarazi du eta gaia aztertuko dela esan du. *Han preguntado a ver qué pasa con el servicio de cortes de hierba. El Ayuntamiento informa que el contrato con la empresa no ha cambiado. Informa que ha habido quejas en otros barrios y que se estudiará el tema.*

Non dago jasota ze belar den udalak moztu behar duena eta zein ez? Etxe ondoan duten belar eremu bat ez da mozten, eta belarra mozten dutenek esan diete zati hori ez dutela egin behar.

Udaleko Hirigintza sailean dago jasota irizpide hori. Informazio hau partekatuko da.

¿Dónde está recogida la hierba que tiene que cortar el ayuntamiento y cuál no? Una zona herbácea junto a la casa no se corta y los que cortan la hierba dicen que no tienen que hacerlo. Este criterio está recogido en el departamento municipal de Urbanismo. Esta información se compartirá.



OIARTZUNGO
UDALA

	<p>Mendinerako bidean, goitik, putzu bat egiten da kurban, beti dago, ez da eguraldi txarrekin bakarrik. Ikuskatzera pasako dela jakinarazi du Udalak. <i>En el camino hacia Mendin, desde arriba, se hace un pozo en la curva, siempre está, no es sólo con mal tiempo. El Ayuntamiento informa que se pasará a inspeccionar.</i></p> <p>Poligonoan 2 etxebizitza egin ziren lokal batetik eta badituzte pertxak hondakinak uzteko? Zaborra botatzen dute, dena errefusa... Aztertzer pasako dela jakinarazi du Udalak. <i>¿Se construyeron 2 viviendas en el polígono, disponen de perchas para depositar los residuos? Tiran basura, todo rechazo... El Ayuntamiento informa que se pasará a analizar.</i></p> <p>Organikoaren poltsarekin arazoak, konpostagarria da baino ez dute jasotzen, plastiko itxura du baino konpostagarria da. Batzuetan bai besteetan ez. Hilabetero biltzen da udala enpresarekin eta arazo hau bilerara eramango dela jakinarazi du Udalak. <i>Hay problemas con la bolsa de orgánico compostable, tiene aspecto de plástico y no siempre se recogen. El ayuntamiento se reúne mensualmente con la empresa y el Ayuntamiento informa que este problema se trasladará a la reunión.</i></p>

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	
Ponentes: Las explicaciones	7,84
Bilera ongi gidatu da	
Ponentes: Dirección o orientación de la reunion	7,79
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	
Metodología	7,16
Auzotar kopurua	6,33



OIARTZUNGO
UDALA

Asistencia	
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	
Participación	7,44
Saioa probetxugarria izan al da?	
¿Ha sido provechoso?	7,37
Egunaren egokitasuna	
¿Día apropiado?	7,89
Orduaren egokitasuna	8,22
¿Hora apropiada?	
Lekuaren egokitasuna	7,47
¿Sitio adecuado?	